



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN TXOSTENA, BIZKAIKO PERITU ETA INGENIARI TEKNIKO INDUSTRIALEN ELKARGOAREN ESTATUTUEI BURUZKOA

Osoko bilkura

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, presidentea

Natividad Goñi Urriza andrea, kidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kidea

Idazkaria: Ibon Alvarez Casado jauna

Laburpena:

TOCLehiaren Euskal Kontseiluaren (aurrerantzean, LEK) Osoko Bilkurak, goian aipatutako osaera duenak, Bizkaiko Peritu eta Ingeniari Tekniko Industrialen Elkargoaren estatutuei buruzko txosten hau ematea erabaki du 2014ko uztailearen 7ko bilkuran.

I. AURREKARIAK

1. 2014ko martxoaren 24an, Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Saileko Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen Zuzendaritzak idazki bat aurkeztu zuen Lehiaren Euskal Agintaritza (aurrerantzean, LEA) honen aurrean, eta, horrekin batera, Bizkaiko Peritu eta Ingeniari Tekniko Industrialen Elkargo Ofizialaren Estatutuen (aurrerantzean, BITIEOE) aldaketaren kopia bat ere aurkeztu zuen, LEAk jakinaraz zezan ea aldaketa bat datorren lehia babesteari buruz indarrean dagoen araudiarekin.

II. LEA-REN ESKUMENAK ETA AURRETIKO HAUSNARKETA JURIDIKOAK

2. Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legeak 3.3. eta 10.n artikuluetan erakundeari lehia sustatzeko ematen dizkion eskumenak erabiliz egin dugu txosten hau.

Eskumen horien helburua da EAEko merkatuetan benetako lehia sustatzea (eta, ahal dela, bermatzea). Horretarako, zigorrak ez diren neurriak hartzen ditu Lehiaren Euskal Agintaritzak, eta, horrelako neurrien esparruan, besteak beste, administrazio publikoekin harremanetan jartzen da.

3. Gure antolamendu juridikoak elkargo profesionalei buruz arautzen duena Espainiako Konstituzioan oinarritzen da. Hain zuzen ere, honako hau xedatzen du Konstituzioaren 36. artikulua: "Legeak lanbide-elkargoen araubidea ezarri eta tituludun lanbideen



jarduera arautuko du. Elkargoen barne-egiturak eta jardunbideak demokratikoak izan beharko dute”.

Premisa hau izan behar dugu abiapuntu: elkargoetako lanbideetan lehia askea behar da, eta Lehia Defendatzeko 15/2007 Legea (aurrerantzean, LDL) bete behar da bere osotasunean¹. Lehiari buruzko araudiarekiko mendekotasuna are gehiago nabarmendu da Erkidegoko Zerbitzuen Zuzentaraua aplikatu ostean sortu diren araudi-aldaketa berriekin². Bai estatuan bai EAEn, zuzentarau hori elkargo profesionalen araudia baino lehenagoko erregulazioan oinarritzen da: elkargo profesionaleri buruzko 1974ko estatu-mailako legean (aurrerantzean, EPL), eta 18/1997 Legean, EAeko tituludun lanbideei eta elkargo eta kontseilu profesionaleri buruzkoan (aurrerantzean, EEL), hain zuzen ere³. Dena dela, une honetan zuzentarau hori estatuan nahiz autonomia-erkidegoetan betearazteko hainbat xedapen daudenez, aldaketa ugari eragin dituzte arau haietan, eta, horrenbestez, baita elkargo profesionalen funtzionamendu-araubidean ere. Kontuan hartzekoak dira, batik bat, Aterki Legea (17/2009), Omnibus Legea (25/2009) edo EAeko 7/2012 Legea⁴.

Honako hau da EELren xedea: “tituludun lanbideek Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean aurrera daramaten jarduna eta lurralde horretan bertan diharduten elkargo eta kontseilu profesionalak arautzea. Oinarritzko legerian eta/edo arlo horretako legerian jartzen duena ere kontuan hartu beharko da”. Zioen azalpenak dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoak soilik dituen eskumenak erabiliz egina da araudia, Espainiako Konstituzioaren 139. artikuluaen kaltetan izan gabe. Hain zuzen ere, zera xedatzen da artikulua horretan: “Ezin du inolako agintarik neurririk hartu, baldin eta neurri horiek, zuzenean edo zeharka, oztopatzen badute Espainiako lurralde osoan gizabanakoek askatasunez zirkulatzea eta bertan ezartzea, eta ondasunek askatasunez zirkulatzea”.

Horregatik, Bizkaiko Peritu eta Ingeniari Tekniko Industrialen Elkargoa EELn xedatutakoaren mende dago, 2012an Europako Erkidegoko araudira egokitze egindako aldaketen ostean indarrean dagoen testuari jarraituz. Arau horren bederatzigarren xedapen gehigarriak ezarritakoari jarraituz, “Elkargo profesionalen errejimenaren oinarriak arautzen dituzten aginduak bere osoan edo zati batean jasotzen dituzten lege honetako atalak legegintza-sistematikari jarraitzeagatik sartu dira testu honetan. Horren ondorioz, atal horiek ere aldatutzat joko dira agindu haiek aipatu den oinarritzko araudian birmoldatzen diren unean”.

¹ 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, lehia defendatzekoa.

² 2006/123/EE Zuzentaraua, 2006ko abenduaren 12koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa.

³ 2/1974 Legea, otsailaren 13koa, elkargo profesionaleri buruzkoa. 7/1997 Legea, apirilaren 14koa, lurra liberalizatzeko neurriak ematekoa eta elkargo profesionaleri buruzkoa. 18/1997 euskal Legea, tituludun lanbideen eta elkargo eta kontseilu profesionalen jarduna arautzen duena.

⁴ 17/2009 Legea, azaroaren 23koa, zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzkoa (Aterki Legea esaten zaio); 25/2009 Legea, abenduaren 22koa, zenbait lege aldatzen dituena zerbitzu-jardueretan aske sartzeari eta aritzeari buruzko Legeari egokitze (Omnibus Legea esaten zaio); eta Eusko Legebiltzarraren 7/2012 Legea, apirilaren 23koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruzko zuzentaraua egokitze aldera zenbait lege aldatzen dituena, eta tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko 18/1997 euskal Legea aldatzen duena.



4. Profesionalen elkargoek araudiari men egitea ez da estatutuen eta elkargoen beste arau batzuen (barne-araubideen, prozeduren, araudi deontologikoen...) hitzez hitzeko testuak araudiari men egitea bakarrik. Aitzitik, elkargoen jardun guztiak araudiari men egitea ere bada. Horregatik, estatutuen testua dena dela ere, elkargoek ezin dute onartu lehia mugatzen duen erabaki edo gomendiorik, eta ezin dute ezarri horrelako betebeharrak edo eskakizunik, lehia babesteko legedia urra baitezakete⁵.

5. BITIEOEei buruzko txosten hau egituratzeko, kategoria materialak hartu ditugu kontuan; hau da, ez diogu jarraitu artikuluen ordenari. Hala ere, argiagoa izan dadin, oinarritzko arauen testuak aipatu ditugu epigrafe bakoitzean, eta adierazi dugu BITIEOEetako zer agindutan duten eragina eta zer iritzi dugun.

Halaber, adierazi behar dugu LEAk bi motatako gomendioak emango dituela txosten honetan: araudiaren balizko urraketa agerian jartzen dutenak eta BITIEOEak indarrean dagoen legediaren kontrakoak ez diren baina lehiari behar baino kalte handiagoa egiten dioten pasarteei buruzkoak. Bigarren gomendio-motari dagokionez, lehiari kalte txikiagoa egiten dioten aukerak proposatuko ditugu, interes publikoarentzat onuragarriagoak direlakoan.

III. LEHIARI BURUZKO ARAUDIAREN GAINEKO HAUSNARKETAK

1. Elkargoko kide egitearekin lotutako gaiak.

A. Derrigortasuna.

6. Auzitegi Konstituzionalak (AK) Espainiako Konstituzioaren 36. artikulua, elkargoei buruzko arauaketa konstituzionala jasotzen duena, interpretatu eta honako hau finkatu du: "elkargo bateko kide izan beharra interes publiko bati erantzuteko beharra dagoenean bakarrik izango da konstituzionalki legezkoa"⁶. Horrenbestez, Auzitegi Konstituzionalak **legegilea** gaitzen du, hark, egokitzat jotzen duenean, elkargo profesionaletan elkartzeko askatasunak eta lanbide-aukeraketa mugatu ditzan —batik bat elkargo bateko kide egin beharra finkatuz—, betiere lanbide jakin batzuekin loturiko interes publikoek hala justifikatzen dutenean⁷.

⁵ LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA: *Informe sobre los Colegios Profesionales tras la transposición de la Directiva de Servicios*, Madril, 2011. 22. orria eta hurrengoak.

⁶ AKren 89/1989 Epaia, maiatzaren 11koa. Zentzu berean, AKren abenduaren 15eko 330/1994 Epaia kontsulta daiteke, beren borondatez atxikitzea ahalbidetzen duten elkargoak baimentzen dituenak. Era berean, AKren apirilaren 23ko 76/2003 Epaia dugu, toki-administrazioko idazkarien, kontu-hartzaileen eta diruzainen elkargoei dagokienez elkargo bateko kide izan beharra konstituzioaren aurkakotzat jotzen duena, lanbidearen antolaketarekin lotuta konstituzionalki garrantzitsuak diren helburu edo eginkizun publikoak garatzen ez dituztelako, hain zuzen.

⁷ Ikus, halaber, gure mugetatik kanpo, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 1983ko otsailaren 10eko Epaia. *As. Le Compte, Van Leuven eta De Meyere vs Belgika*, edo 1993ko ekainaren 30eko Epaia, *Sigurdur A. Sigurjónsson vs Islandia*, A seriea, 264. zenbakia; bertan, neurritz kanpokotzat jotzen da taxi-gidari bati taxi-gidarien erakunde batera atxikitzeke legezko betebeharrak ezartzea.



Aterki Legeak, hau da, zerbitzuei buruzko 2006/123 Zuzentaraua gurera ekartzen duenak, elkargo bateko kide egiteko betebeharra ezartzea baimentzen du, salbuespen gisa, honako egoera hauetan:

- Ordena publiko, segurtasun publiko, osasun publiko edo ingurumena babesteko arazoak direla eta, justifikatuta dagoenean. (12. artikulua)
- Eskakizuna diskriminatzailea ez denean; hau da, ez zuzenean, ez zeharka, diskriminatzailea ez denean, eskumena duen agintaritzaren lurraldeko kokapenaren edo nazionalitatearen arabera. (5. artikulua)
- Beharrezkoa denean (hau da, interes orokorreko premiazko neurriren batek justifikatzen duenean). (5. artikulua)
- Helburua lortzeko neurrikoa denean; hau da, elkargoko kide izatea lortu nahi den helburua lortu ahal izateko tresnarik onena denean, eta, beraz, emaitza bera lortzea ahalbidetuko duen neurri hobeagorik ez dagoenean. (5. artikulua)
- Araubide hori zehazten duen legean behar bezala arazoitzen denean. (5. artikulua)

Euskal Autonomia Erkidegoan, EELren 30.1. artikuluari jarraituz, elkargo profesional batean sartu beharra eskatu ahal izango da jarduera jakin batzuetan jarduteko. Xedapen horren arabera, "elkargoetako lanbideetan jarduteko ezinbesteko baldintza da dagokion elkargoko kide izatea, **dagokion legeak horrela jasotzen duenean**"⁸. Horrenbestez, elkargo bateko kide izateko beharra ezartzea lege-mailako arauen batean aukera hori jasotzen denean bakarrik jo ahal izango da egokitzea.

Gainera, elkargo bateko kide egiteko beharra lege-mailako arauen batean jaso beharko da hark LDLren 4. artikulua babesa izan dezan⁹.

Oro har, Omnibus Legeak sarbidearen eta jardun profesionalaren mugak ezabatu zituen, baina etorkizunean gauzatu beharko den araudi baten esku utzi zuen jarduererreserben eta elkargo bateko kide egiteko beharraren aldaketa¹⁰. Une honetan, EPLren 3.2. artikulua arabera, estatuko lege batek hala ezartzen duenean soilik eskatu ahal izango da elkargo bateko kide izatea lanbide batean jarduteko. Dena den, elkargo bateko kide izatea nahitaezkoa duten lanbideak legez arautzen ez diren bitartean, eta Omnibus Legearen laugarren xedapen iragankorrari jarraiki, hura

⁸ AKren 2013ko urtarrilaren 17ko 3/2013 Epaia (2013ko otsailaren 12ko BOE, 37. zk.), Andaluziako profesionalen elkargoei buruzkoa; haren arabera, Estatuaren berariazko eskumena da derrigorrez elkargoko kide egin behar izatea edo salbuespenak finkatzea. Zentzu berean agertzen dira AKren 46/2013 Epaia (Extremadurako legeari dagokionez) eta AKren 50/2013 Epaia (Asturiasko legeari dagokionez).

⁹ Honako hau dio aipatutako 4. artikulua horretako "Legeak salbuetsitako jokaerak" epigrafeak: "Lehiaren defentsaren arloko xedapen komunitarioen behin-behineko aplikazioaren kalterik gabe, kapitulu honetako debekuak ez zaizkio aplikatuko lege baten aplikazioaren ondorio diren jokaerei". Hala ere, honela jarraitzen du artikulua: "Kapitulu honetan aipatzen diren debekuak lehia murrizten duten egoera jakin batzuei ezarriko zaizkie, hau da, administrazioaren beste ahalmen batzuk gauzatzearen ondorio direnei, edo aginte publikoen edo enpresa publikoen jardueraren ondorio direnei, lege-babesik gabe ekinez gero".

¹⁰ Honela dio arau horren laugarren xedapen iragankorrak: "Hamabi hilabeteko epean, Gobernuak lege-proiektu bat igorriko die Gorte Nagusiei, eta bertan, elkargo bateko kide izatea nahitaezkoa duten lanbideak zehaztuko dira", baina lege-proiektu hori ez da oraindik igorri. "Proiektu horretan elkargo bateko kide izan beharraren jarraitutasuna aurreikusi beharko da hura jardun profesionalaren kontrolerako tresna eraginkorra den kasuetan, hartara zerbitzuen hartzaileak hobeto babesteko, bai eta interes publiko bereziko gaiak modu larrian edo oso larrian kaltetu daitezkeen jardueretan ere, adibidez pertsona fisikoen osasunaren babesa eta osotasun fisikoa edo segurtasun pertsonala edo juridikoa kaltetu daitezkeen kasuetan".



indarrean sartu zen unean indarrean zirenak finkatu dira. Horregatik, aldi baterako, elkargo bateko kide izatea beharrezkoa duten egoerak mantendu dira, arauan ezarrita ez egon arren eta, beraz, maila egokiko arau baten bidez ezarritakoak ez izan arren.

7. Peritu industrialen elkargoak eratzeko baimena ematen zuen 1956ko ekainaren 22ko Dekretuari jarraiki (uztailaren 22ko BOE) eratu zen Ingeniaritza Tekniko Industrialeko Kontseilu Nagusia. Baimen horrek xedatu zuen Industria Ministerioaren 1957ko urriaren 16ko Aginduaren bidez (1958ko martxoaren 1eko BOE) sor zitezela peritu industrialen elkargoak, eta onar zitezela peritu industrialen elkargoen lehenengo estatutu orokorrak.

Peritu eta ingeniari tekniko industrialen elkargo ofizialen eta haien kontseilu nagusiaren estatutu orokorrak onartzen dituen urtarrilaren 24ko 04/2003 Errege Dekretuak honako hau xedatzen du 7. artikuluan: "(...) Lanbidea gauzatzeko, norberaren kontura edo hirugarrenen kontura edo edozein modutan izanda ere, derrigorrezkoa izango da dagokion elkargori atxikita egotea". Derrigortasun horren oinarria, beraz, ez da lege bat, erregelamendu-maila duen errege-dekretu bat baizik.

8. BITIEOEtan, honako xedapen hauetan lantzen da elkargora nahitaez bildu beharra:

3. artikulua. Irismena.

Unibertsitate-tituludunek osatzen dute elkargoa; horiek ingeniari tekniko industrialaren lanbide arautua gauzatzeko dute apirilaren 1eko 12/1986 Legeak esleitutako berezko eskuduntza-profesionalekin. Elkargoan sartu ahal izango dira, haiek eskatuta eta nahi dutelako, Estatuak indarrean dagoen hezkuntza-legediarekin bat emandako, homologatutako edo onartutako dagokion unibertsitateko titulu akademikoa dutenak, betiere estatutu hauetan eskatzen diren gainerako baldintzak betetzen badituzte. Legeak xedatutakoaren arabera, honako titulu ofizial hauek emango dute elkargo ofizial honetan sartzeko aukera eta, beraz, ingeniari tekniko industrialaren lanbide arautua gauzatzeko, berezko eskuduntza-profesionalekin:

Elkargoan sartu ahalko dira jarraian azaltzen diren tituludunak, azaroaren 27ko 1497/1987 Errege Dekretuaren aurretiko ikasketa-planen arabera, eta urriaren 26ko 1462/1990 eta azaroaren 20ko 1402/1992, **1403/1992**, 1404/1992, 1405/1992 eta 1406/1992 errege-dekretuekin bat: peritu industrialak, betiere titulu ofiziala edo behar bezala homologatutakoa badute, elkargori hala eskatzen badiote eta estatutu hauetan ezarritako gainerako eskakizunak betetzen badituzte; ehungintzako industria-diseinuko ingeniari teknikoak, eta adar industrialetako graduako ingeniari-titulu ofiziala dutenak, urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren 12.9. artikuluan eta otsailaren 9ko CIN/351/2009 Aginduan ezarritako baldintzen arabera eskuratutako titulua alegia.

Unibertsitateko beste titulu ofizial batzuk, baldin eta, estatutu hauek indarrean sartu baino lehen, Espainiako antolamendu juridikoak ezartzen badu horiek baliagarriak direla ingeniari tekniko industrialaren lanbide arautua gauzatzeko.

Elkargoan sartzeko eskatu ahal izango dute, nahi badute, Europar Batasuneko eta beste herrialde batzuetako herritarrek, Espainian estatutu hauetan araututako lanbideei dagozkien jarduerak egiteko gaituta badaude.

12. artikulua. Elkargoko kide egitea.

1.- Bizkaiko ITIEOn bilduko dira peritu industrial, ingeniari tekniko industrial eta industria- eta ingurumen-adarretako graduako ingeniari-titulua duten guztiak, betiere Estatuak emandako, homologatutako edo onartutako dagokion titulu ofiziala eta baliozkoa badute, hala eskatzen badute eta estatutu hauetan ezarritako



gainerako eskakizunak betetzen badituzte, eta, derrigorrean, lanbidea gauzatzen dutenak eta batez ere elkargoaren lurralde-esparruaren baitan lan egiten dutenak.

5.- Estatutu hauen 2. artikuluan ezarritako lurralde-esparruan lan egiteko, norberaren kontura edo hirugarrenen kontura, eta lan profesionalak ikus-onetsi edo ez, derrigorrean bete beharreko baldintza da dagokion elkargo profesionaleko kide izatea.

58. artikulua. Lanbidean jardutea.

5.- Estatutu hauen 2. artikuluan ezarritako lurralde-esparruan lan egiteko, norberaren kontura edo hirugarrenen kontura, eta lan profesionalak ikus-onetsi edo ez, derrigorrean bete beharreko baldintza da dagokion elkargo profesionaleko kide izatea.

Lanbide-jarduera, norberaren kontura edo hirugarrenen kontura eginda ere, indarrean dauden arauen mende gauzatu behar da, eta jarduera hori lehia askearen arabidean arautzen duten aginduen mende, bai eta Lehia Defendatzeko Legearen, Lehia Desleialaren Legearen, Zerbitzu Profesionalen Legearen eta aplikagarri diren gainerako xedapenen mende ere.

9. Elkargora nahitaez bildu beharrak jarduera gordetzea dakar elkargokide izan behar duten eta titulu jakin bat eskura izan behar duten profesionalentzat. Lanbidearen jarduera elkargoko kide diren profesionalak berariaz gordetzeak sartzeko oztopo handiak eragiten dizkie hirugarrenei eta, printzipioz, horrek gainerako lehiakideak eta kontsumitzaileak kaltetzen ditu¹¹.

Egiaztatu da BITIEOEek elkargoko kide izatea ingeniari tekniko industrialaren jarduera gauzatzeko betebeharrak gisa ikusten dutela.

Nolanahi ere, elkargora nahitaez bildu beharraren indarraldiak behin-behineko izaera du, Omnibus Legearen laugarren xedapen iragankorra aplikatuz; izan ere, eta oraindik lege-mailako Estatuko arau batean jasota ez egon arren, 104/2003 Errege Dekretuaren 7. artikulua indarraldia finkatu da, eta bertan dagoeneko jasotzen zen elkargora nahitaez bildu beharra.

Dena den, araudia aldatu aurretik elkargoaren estatutuak aldatu behar badira, elkargora nahitaez bildu beharraren erreferentziak saihestu behar dira, edo nahitaezko baldintza horrek legearen arabera egokia ez den maila bateko arau batean zehaztutakoari erantzuten diola adierazi behar da, eta, beraz, eskakizun horrek izaera iragankorra duela lege-mailako arau batean txertatu bitartean¹².

Hortaz, espresuki aipatu beharko litzateke elkargoko kide izateko betebeharrak errege-dekretu batean jasotzen dela eta, beraz, horren indarraldia iragankorra dela Omnibus Legearen laugarren xedapen iragankorraren arabera. Elkargoak bere estatutuak aldatu beharko ditu Erkidegoko Zerbitzuen Zuzentaraua puntu horri aplikatzen dion araudia onartzen den unean.

B. Titulazioa.

10. Bolonia prozesua delakoaren ondorioz, desagertu egin zen "titulazioen katalogoa", eta unibertsitate-titulu berriak sortzeko aukera eman zitzaizen unibertsitateei.

¹¹ Lehiaren Batzorde Nazionalaren txostena, *cit.* 42. or.

¹² Lehiaren Batzorde Nazionalaren txostena, 44. or.



2010. urteaz geroztik, unibertsitateek bertan eman nahi dituzten irakaskuntzak eta tituluak sortu eta proposa ditzakete, Gobernuak ezarritako aurretiko katalogo bati lotuta egon gabe¹³.

11. BITIEOEen 3. artikulua elkargoko kide izateko aukera emango duten titulazio zehatzen zerrenda jasotzen du:

1. artikulua. Elkargoa.

1. Bizkaiko Perituen, Ingeniari Tekniko Industrialen eta Industria Adarreko Ingeniaritzan Graduatuen Elkargo Ofiziala, "BIZKAIKO INGENIARI TEKNIKO INDUSTRIALEN ELKARGO OFIZIALA" deritzona, aurrerantzean Bizkaiko ITIEO, ondorio guztietarako, baita zerga-ondorioetarako, legezkoetarako, etab., edo ordezkaritza-ondorioetarako ere, legeak babestutako zuzenbide publikoko korporazio bat da, izaera profesionala duena; izaera juridiko propioa eta jarduteko ahalmen osoa ditu, eta peritu edo ingeniari tekniko industrialaren lanbidearen jarduna arautzen du haren lurralde-esparruan. Arautzen ditu, baita ere, ingeniari tekniko industrialaren lanbide arautua gauzatzeko gaitzen duen graduko unibertsitate-titulu ofiziala dutenak. Hark soilik du lanbide hori ordezkatzeko ahalmena, eta elkargokideen interesak kudeatzeaz eta defendatzeaz arduratu behar du, agintari publikoen eskumenen kaltetan izan gabe.

3. artikulua. Irismena

Unibertsitate-tituludunek osatzen dute elkargoa; horiek ingeniari tekniko industrialaren lanbide arautua gauzaten dute apirilaren 1eko 12/1986 Legeak esleitutako berezko eskuduntza-profesionalekin. Elkargoan sartu ahal izango dira, haiek eskatuta eta nahi dutelako, Estatuak indarrean dagoen hezkuntza-legediarekin bat emandako, homologatutako edo onartutako dagokion unibertsitateko titulu akademikoa dutenak, betiere estatutu hauetan eskatzen diren gainerako baldintzak betetzen badituzte.

Legeak xedatutakoaren arabera, honako titulu ofizial hauek emango dute elkargo ofizial honetan sartzeko aukera, eta, beraz, ingeniari tekniko industrialaren lanbide arautua gauzatzekoa berezko eskuduntza-profesionalekin:

- Elkargoan sartu ahalko dira jarraian azaltzen diren tituludunak, azaroaren 27ko 1497/1987 Errege Dekretuaren aurretiko ikasketa-planen arabera eta urriaren 26ko 1462/1990 eta azaroaren 20ko 1402/1992, **1403/1992**, 1404/1992, 1405/1992 eta 1406/1992 errege-dekretuekin bat: peritu industrialak, betiere titulu ofiziala edo behar bezala homologatutakoa badute, elkargolari hala eskatzen badiote eta estatutu hauetan ezarritako gainerako eskakizunak betetzen badituzte; ehungintzako industria-diseinuko

¹³ 4/2007 Lege Organikoa, apirilaren 12koa, abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa, Unibertsitatei buruzkoa, aldatzen duena:

“35. artikulua. Titulu ofizialak.

1. Gobernuak ezarriko ditu izaera ofizialeko unibertsitate-tituluak, lurralde nazional osoan baliozkoak direnak, eskuratzeko jarraibideak eta baldintzak, eta unibertsitateko errektoreak emango ditu horiek Erregearen izenean.

2. Irakaskuntza ofizialak emateko eta lurralde nazional osoan baliozkoak diren titulu ofizialak emateko, unibertsitateek autonomia-erkidegoaren dagokion baimena eduki beharko dute, horren legedian eta lege honen 8. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Unibertsitateen Kontseiluak egiaztatu beharko du dagokion ikasketa-plan hori Gobernuak ezarritako jarraibideetara eta baldintzetara egokitzen dela. Unibertsitateen autonomia akademikoa mantendu beharko du prozedurak.

3. Autonomia-erkidegoaren baimena jaso eta Unibertsitate Kontseiluak ikasketa-plana egiaztatu ostean, Gobernuak ezarriko du titulu hori ofiziala dela, eta hori unibertsitateen, zentroyen eta tituluaren erregistroan inskribatzeko agindua emango du.

4. Behin Gobernuak titulu hori ofizialtzat jotakoan, errektoreak agindua emango du ikasketa-plana Estatuko Aldizkari Ofizialean eta dagokion autonomia-erkidegoko aldizkari ofizialean argitaratu dadin”.



ingeniari teknikoak, eta adar industrialetako graduko ingeniari-titulu ofiziala dutenak, urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren 12.9. artikuluan eta otsailaren 9ko CIN/351/2009 Aginduan ezarritako baldintzen arabera eskuratutako titulua alegia.

- Unibertsitateko beste titulu ofizial batzuk, baldin eta, estatutu hauek indarrean sartu baino lehen, Espainiako antolamendu juridikoak ezartzen badu horiek baliagarriak direla ingeniari tekniko industrialaren lanbide arautua gauzatzeko.
- Elkargoan sartzeari ahal izango dute, nahi badute, Europar Batasuneko eta beste herrialde batzuetako herritarrek, Espainian estatutu hauetan araututako lanbideei dagozkien jarduerak egiteko gaituta badaude.

12. BITIEOEen 3. artikuluari emandako idazketan kontuan hartu dira aipatutako aldaketak, eta, beraz, ez da jarduera-erreserbarik egingo gaitzen duten unibertsitateko titulu batzuk dituztenen alde eta beste profesional batzuen kaltetan (lanbide-jarduera gauzatzeko behar den gaitasun teknikoa izanda, elkargoan sartu ezin direnak artikuluan jasotako titulazioak ez dituztelako).

Alabaina, hori arautzen duen paragrafoari emandako idazketa aldatzea proposatzen da, ez dadin nahasterik sortu. Horretarako, honako idazketa hau edo antzekoa proposatzen da: "Ingeniari tekniko industrialaren lanbidea gauzatzeko aukera ematen duten unibertsitateko beste titulu ofizial batzuk".

C. Eskakizunak

13. EELren 33.3. artikulua arautzen du zer eduki izan behar dituzten elkargoen estatutuek, eta haren h idatz-zatian xedatzen du "elkargoko kide-izaera eskuratzeko eta galtzeko baldintzak" jaso behar dituztela. Gainera, honako hau xedatzen du EELren 39. artikulua, elkargoan sartzeari buruzkoak: "Elkargo profesionalek sarrera-eskaria egiten duten guztiak onartu behar dituzte derrigorrez, baina eskari-egileek, lehenago, kasuan kasuko lanbidean jarduteko legez eskatzen zaien titulua egiaztatu beharko dute eta bete behar dituzten estatutu eta xedapenetan oro har eskatzen zaizkien beste baldintzak ere bete beharko dituzte".

14. BITIEOEetan, 14. artikuluan arautzen dira elkargoan sartzeko baldintzak:

14. artikulua. Elkargoan sartzeko baldintzak.

Elkargoan sartu ahal izateko, lanbide-jarduera tituluduna gauzatu ahal izateko legeak ezarritako eskakizun guztiak bete beharko ditu interesdunak, eta honako hauek dira:

- a) Dagokion titulua izatea indarrean dagoen legediarekin bat.
- b) Lanbidea gauzatzeko desgaitzen duen zigorrak ez izatea.
- c) Legeak ezarritako bateraezintasun- edo debeku-arrazoirik ez izatea.
- d) Elkargoan sartzeko arauak betetzea.

15. Estatutuetan argi eta garbi adierazi beharko litzateke elkargoan sartu nahi dutenek zer baldintza bete behar dituzten. Gainera, elkargoan sartzeari araututako egintza bat denez, ezin da ukatu; eskatzaileak horretarako ezarritako eskakizunak betetzen ez baditu soilik ukatu ahal izango da. Horretarako, eskakizunek aurrez ezarrita eta iragarrita egon behar lukete.

14. artikulua d idatz-zatiaren zehaztasun-erak segurtasun juridikoaren falta eragin lezake, eta, beraz, honako aukera hauetako bat gomendatzen da:

- Artikulu hori kentzea.



- Artikulu hori zehaztea.

2. Elkargo bateko kide izatea Estatuko lurralde osoan.

16. EELk, normala denez, ez du gai horri buruzko berariazko araudirik ezartzen, baina honako hau xedatzen du haren 39.4. artikuluan: "Elkargoek ezin diete exijitu inongo komunikaziorik edo gaikuntzarik elkargoa daukaten lurraldetik kanpo lan egiten duten kideei, ez eta jasotzen dituzten prestazioengatik, elkargoaren kuotak berak ordaintzen ez dituela eta, beren kideei normalean eskatzen dizkieten ordain ekonomikoez aparteko beste ordainik ere exijitu". Gainera, kontuan hartu behar dira EKren 139. artikulua eta EPLren 3.3. artikulua; horrek xedatzen du, erkidegoko araudia aplikatzean, lanbide bat lurraldeetako elkargoen arabera antolatzen bada, nahikoa izango dela horietako batean soilik egotea lanbide hori lurralde nazional osoan gauzatu ahal izateko.

17. BITIEOEetan, 13. artikulua 3. atalean arautzen da gai hori.

13. artikulua. Elkargoan sartzeko eskaerak.

(...)

3.- Aurreko paragrafoan adierazitakoaren kaltetan izan gabe, Bizkaiko ITIEOk ez die elkargo horretan sartzea edo inolako gaikuntzarik eskatuko Bizkaiko Lurralde Historikoan jarduteko Estatutu hauen 111. Kapituluako 12. artikulua 1. atalean aipatzen diren profesionalen horiek Estatuko elkargoren batean sartuta badaude; egoitza profesional bakarrari edo nagusiari dagokion elkargoa izango da hori. Gainera, ezin izango dute eskatu jasotzen dituzten prestazioengatik, elkargoaren kuotak berak ordaintzen ez dituela eta, beren kideei normalean eskatzen dizkieten ordain ekonomikoez aparteko beste ordainik; halere, Estatuko Estatutu Orokorrek edo erkidegokoek ezar dezakete Bizkaiko ITIEOri jakinarazi beharko zaiola Bizkaiko Lurralde Historikoan gauzatzen den jarduera profesional oro.

18. 13. artikulua 3. atalean adierazten da Estatuko edo erkidegoko estatutu orokorrek jarduera profesionala BITIEOri jakinarazteko beharra ezarri ahalko dutela, eta baieztapen hori **kendu egin behar da**.

3. Zerbitzu-sariak.

A. Zerbitzu-sariak kobratzeko elkargoaren zerbitzua.

19. EELren 24.f artikulua dio elkargoen berezko eginkizuna dela "Ordainak, soldatak eta zerbitzu-sariak kobratzea, elkargoko kideek eskatuz gero eta, betiere, elkargo bakoitzeko estatutuetan zehazten diren baldintzetan". EPLren 5.p artikulua xedatzen du elkargoen eginkizunetako bat dela "Ordainak, soldatak eta zerbitzu-sariak kobratzea, elkargoko kideek haiek nahita eta espresuki eskatuz gero, betiere, elkargoak horretarako zerbitzu egokiak sortuta baditu, eta elkargo bakoitzeko estatutuetan zehazten diren baldintzetan".

20. BITIEOEetan, 9. artikulua arautzen da gai hori:

9. artikulua. Eginkizunak.

Haren xedeak lortzeko, honako eginkizun hauek gauzatuko ditu elkargoak beste batzuen artean:



7.- Elkargokideei laguntzea haien zerbitzu-sariak jasotzeko egin beharreko jardueretan, haiek hala eskatzen badute.

21. Derrigorrean gogorarazi behar da elkargoaren jardueraren xedea ez dela izango, ez zuzenean, ez zeharka, prezioak finkatzea edo orientatzea. "Zerbitzu-sariak kobratzeko elkargoaren zerbitzua" delakoa elkargoek elkargokideen jarduera kontrolatzeko balizko tresna gisa pentsatu da. Beraz, zerbitzu horrek ezin du derrigorrezkoa izan; langileak eskatu ahal izango du nahi badu, eta espresuki eskatu ere, BITIEOEen idazketan ongi adierazten den eran.

Lehiaren Batzorde Nazionalak berak hala xedatu zuen haren txostenean: "Zerbitzu-sariak elkargo profesionalen bidez kobratzeak lehia mugatzeko arrisku handiak dakartza. Alde batetik, profesionalak aurretiko akordiorik badute zerbitzu-sarien, merkatu-banaketaren edo konpentsazio-akordio baten gainean, kobratzeak zentralizatzea profesionalak akordioa betetzen dutela kontrolatzeko mekanismo izan daiteke. Beste alde batetik, aipatutakoen moduko lehiaren kontrako aurretiko akordiorik ez badago ere, profesionalen kopuru handi batek elkargoaren bidez kobratzen badu, kobratzei buruzko informazioa zabaltzeak lehia murriztea ekar dezake"¹⁴.

B. Zerbitzu-sariei eta prezioak zeharka zehazteari buruzko txostenak.

22. EELk haren 24. artikuluan zehazten du elkargoen eginkizunak direla honako hauek: "irizpide orientagarriak lantzea kostuak tasatzeko eta abokatuen kontuen zinerako. Irizpide horiek baliozkoak izango dira, baita ere, doako laguntza juridikoan kostuak tasatzeko ondorioetarako dagozkion zerbitzu-sariak eta eskubideak kalkulatzeko" (e idatz-zatia) eta "zerbitzu-sariak eztabaidagai dituzten prozesu judizial eta administrazio-jardunbideetan txostenak ematea" (f idatz-zatia *in fine*)¹⁵.

Bere aldetik, Omnibus Legeak kendu egin zuen EPLren 5. artikuluan jasotako elkargoen eginkizuna, zerbitzu-sari orientagarriak ezartzeari buruzkoa, eta 14. artikuluan espresuki debekatu zuen hori egitea¹⁶. Salbuespen bakarra EPLren laugarren xedapen gehigarrian jaso da, eta horrek ezartzen du elkargoek "irizpide orientagarri" batzuk (eta ez baremoak) landu ahal izango dituztela soilik kostuak tasatzeko eta abokatuen kontuen zinerako ondorioetarako, eta adierazten du irizpide horiek baliagarriak izango direla, baita ere, doako laguntza juridikoan kostuak tasatzeko ondorioetarako dagozkion zerbitzu-sariak eta eskubideak kalkulatzeko.

23. BITIEOEetan, 9. eta 60. artikuluetan arautzen da gai hori:

9. artikulua. Eginkizunak.

Haren xedeak lortzeko, honako eginkizun hauek gauzatuko ditu elkargoak beste batzuen artean:

¹⁴ Lehiaren Batzorde Nazionalaren txostena, 73. or.

¹⁵ EPLren 5.o artikulua honako eginkizun hau aipatzen du: "profesionalen zerbitzu-sariak eztabaidagai dituzten prozedura judizial eta administratiboetan txostenak ematea".

¹⁶ EPLren 14. artikulua: Zerbitzu-sarien gaineko gomendioak debekatzea: "Elkargo profesionalak eta haien erakundeek ezin izango dute baremo orientagarriak ezarri, ez eta bestelako orientaziorik, gomendiorik, jarraibiderik edo araurik profesionalen zerbitzu-sarien gainean, laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoa izan ezik".



8.- Haien jarduera profesioaletan jaso beharreko zerbitzu-sariak aplikatzerakoan sor litezkeen zalantzak interpretatzea, bai eta dagozkion txostenak ematea ere zerbitzu-sariekin lotutako gaiak eztabaidatzen diren prozesu judizialean eta prozedura administratiboetan.

60. artikulua. Profesionalen zerbitzu-sariak.

Zerbitzu-sariak askeak dira, eta elkargokideek haien zenbatekoa eta ordaintzeko baldintzak adostu ahal izango dituzte haien bezeroekin, baina kontuan hartu beharko dituzte lehia desleialari buruzko legezko debekuak. Elkargoak zerbitzu-sariei buruzko irizpide orientagarriak jarri ahalko ditu soilik kostuak tasatzeko ondorioetarako.

24. Lanbidea lehia askearen erregimenean gauzatu behar da (horrek esan nahi du modu askean ezarri behar direla zerbitzu-sariak). Hori horrela, elkargoak ez luke izan behar horiek interpretatzeari buruzko eginkizunik, eta are gehiago kontuan hartuta arriskutsua dela elkargokideek haien lehiakideek zer prezio-politika gauzatzen duten jakitea. Horrek bezeroari kobratu beharreko zerbitzu-sariak bateratzea ekar lezake, eta kalte egingo lioke lehiaren alderdi garrantzitsuenetakoa denari eta kontsumitzaileari mesede gehien ekartzen dionari, alegia, prezioari¹⁷.

Esandakoagatik guztiagatik, atalaren lehenengo zatia kentzea gomendatzen da: "Haien jarduera profesioaletan jaso beharreko zerbitzu-sariak aplikatzerakoan sor litezkeen zalantzak interpretatzea".

25. Atalaren azken tartekia, profesionalen zerbitzu-sariak eztabaidagai dituzten prozedura judizial eta administratiboetan txostenak emateko eginkizunari buruzkoa, bat dator ELPren 5. artikularen o) idatz-zatian jasotako eginkizunarekin, beraz, zuzenbideari egokituta dago.

Hala eta guztiz ere, kostuak tasatzeko irizpideak ezartzeari dagokionean, hasteko zehaztu behar da arauak "irizpide" orientagarriei soilik egiten diela erreferentzia, eta ez "baremo" orientagarriei. Honela definitzen dira irizpide orientagarriak: "kostuak tasatzeko kontuan hartu behar diren elementuen multzoa"¹⁸. Ezin da esan "irizpide" bat denik elementu horiek kasu zehatz bakoitzari aplikatetik ateratzen den emaitza kuantitatiboa. Hori eginez gero, prezio edo zerbitzu-sari baten aurrean egongo ginateke, eta debekatuta dago horiek zehaztea.

4. Ikus-onestea

26. EELren 24. artikulua arautzen ditu elkargoen berezko eginkizunak. Haren i idatz zatiak honako hau aipatzen du: "Lanbide teknikoei dagokienez, bakoitzaren eskumen-esparruko lan profesionalak ikus-onestea, **bezeroek** (herri-administrazioak barne) **halaxe eskatzen dutenean**, edo **indarrean dagoen araudiak** hala agintzen duenean. Ikus-onespenaren **helburua** da, gutxienez, lana egin duena nor den eta zer gaikuntza duen ikustea, eta lan profesional horren dokumentazioa zuzena eta formaz egokia dela ziurtatzea, dena delako lan horri aplikatzekoa zaion araudiaren arabera. Ikus-onespenak argitasun-eskakizunak bete behar ditu haren xedea, kontrolatu diren

¹⁷ EPLren 2.1. artikulua: "Elkargoetan elkartutako kideen jarduera lehia askearen araubidean egingo da, eta zerbitzuen eskaintzari eta horien ordainsariak ezartzeari dagokienez, Lehiaren Defentsari buruzko Legea eta Lehia Desleialari buruzko Legea bete beharko ditu".

¹⁸ Lehiaren Batzorde Nazionalaren txostena, 71. or.



alderdiak eta elkargoak haren gain hartzen duen erantzukizuna zehazterakoan. Ikus-onespenak ez ditu barne hartuko, inola ere, zerbitzu-sariak eta kontratu-baldintzak; horiek alderdien arteko akordio bidez ezarri behar dira. Ez du barne hartuko, ezta ere, lan profesionalaren aukerako elementuen kontrol teknikoa. Elkargoaren ikus-onespena aginduzkoa bada, horren kostuak arrazoizkoa izan beharko du, ez gehiegizkoa eta ezta diskriminatzailea ere. Elkargoek iragarri egin beharko dute ikus-onespenaren kostua, eta bide telematikotik izapidetu ahal izango da¹⁹.

27. BITIEOEetan, 9., 21., 25. eta 57. artikuluetan arautzen da gai hori:

9. artikulua. Eginkizunak.

14. Elkargokideek gauzatzen dituzten proiektuak, txostenak, irizpenak, balioespenak, peritu-txostenak eta gainerako lanak ikus-onestea eta/edo horien egiaztapen dokumental teknikoa egitea indarrean dagoen legedian aurreikusitako baldintzetan eta kasuetan.

21. artikulua. Elkargokideen betebeharrak.

i) Dagokion elkargoaren ikus-onespenaren mende jartzea haren lanbide-jardunean izenpetzen dituen dokumentu tekniko edo aukerakoak, proiektuak, txostenak edo bestelako lanak, indarrean dagoen legedian aurreikusitako baldintzetan eta kasuetan.

25. artikulua. Baliabide arruntak.

5. Lan profesionalak ikus-onestegatik indarrean dagoen legediaren arabera elkargoak kobratu beharreko kuotak eta tasak.

57. artikulua. Lan-profesionalak ikus-onestea eta horien egiaztapen dokumental teknikoa gauzatzea.

Administrazio-zuzenbidera lotutako kontrol-egintza da elkargoaren ikus-onespena, eta elkargoak gauzatzen du legeak esleitutako eginkizun publikoa erabiliz. Horren bidez, egiaztatzen da elkargokide baten proiektu edo lan jakin bat araudi orokorrera edo hura arautzen duen korporazio-araudira egokitzen dela, eta horrek sorrarazitako erantzukizuna hartzen da Estatuaren eta gizartearen aurrean, hori guztia bezeroen interesak eta interes publikoa, oro har, bermatzeko.

Antolamendu juridikoan aurreikusitakoaren arabera lanbidea antolatzeko duen oinarriko eginkizuna betearazteko funtsezko tresna da Bizkaiko ITIEOrentzat elkargoaren ikus-onespena. Xede nagusia da bermatzea kalitate eta segurtasuneko minimo batzuen arabera gauzatzen dela ingeniari tekniko industrialaren lanbidea eta/edo ingeniari tekniko industrialaren lanbide arautua gauzatzeko gaitzen duen ingeniaritza-graduataua. Hortaz, izaera publikoko eginkizuna da, interes orokorraren alde gauzatzen dena, eta hori gauzatzea ez dagokie administrazio-organoei, legeak elkargoen esku uzten baitu.

Ikus-onespena eta egiaztapen dokumental teknikoa derrigorrean edo nahi denean gauzatuko dira indarrean dagoen legedian aurreikusitako kasuen eta baldintzen arabera.

Egiaztapen dokumental teknikoa eskatutakoan egingo da.

A. Ikus-onesteko eskumena.

28. Elkargoen ikus-onespena nahitaez hartzeari buruzko abuztuaren 5eko 1000/2010 Errege Dekretuaren 3. artikulua (aurrerantzean, Ikus Onespenei buruzko Errege Dekretua) xedatzen du ezen, proiektu partzialak dituzten proiektuak ikus-onetsi behar

¹⁹ Zentzu berean jarduten du ELPren 13.1. artikulua.



badira, nahikoa izango dela gai nagusian eskumena duen elkargoak lan osoa ikus-onestea²⁰.

Ikus Onespenei buruzko Errege Dekretuaren 5. artikulua 1. atalak xedatzen du lana izenpetzen duen profesionalak lanaren gai nagusian eskumena duen elkargo profesionalera joko duela, eta elkargo batek baino gehiagok badute eskumena, horietako edozeinetan eskuratu ahal izango duela ikus-onespena.

Azkenik, Ikus Onespenei buruzko Errege Dekretuaren 5. artikulua 2. atalak ezartzen du Estatuko mailaz beheragoko elkargo profesionalak badaude, horietako edozeinetan eskuratu ahal izango dela ikus-onespena²¹.

29. Hori horrela, elkargoak proiektuen ikus-onespenak emateari dagokionez, adierazi behar da elkargoak ez duela mugatu behar ingeniari tekniko industrialeko tituludunek eta/edo ingeniari tekniko graduatuak egindako proiektuetara.

Proiektu partzialak dituzten lanei dagokienez (ingeniari tekniko ez den beste titulazio bat duen profesional batek egindakoak izan daitezke), nahikoa izango da gai nagusiaren alorrean eskumena duen elkargoak lan osoa ikus-onestea²².

Elkargo batek baino gehiagok badute ikus-onetsi beharreko proiektuen ardatz diren gaien gaineko eskumena, lana egin duten profesionalak horietako edozeinetan eskatu ahal izango dute ikus-onespena.

²⁰ Ikus Onespenei buruzko Errege Dekretuaren 3. artikulua: Proiektu partzialak dituzten lanak ikus-onestea. "2. artikuluan aurreikusitako betebeharra betetzeko, nahikoa izango da aipatutako artikulua horretan adierazitako lan profesionalak behin eta elkargo bakar batek ikus-onestea, horiek proiektu partzialen edo beste dokumentu tekniko batzuen bidez garatzen edo osatzen badira ere; 5. artikuluan aurreikusitakoarekin bat lanaren arlo nagusian eskumena duen elkargoak ikus-onetsi beharko du, eta ez da beharrezkoa izango lana osatzen duten dokumentuak partzialki ikus-onestea".

²¹ Ikus Onespenei buruzko Errege Dekretuaren 5. artikulua: Lan profesionalak ikus-onesteko eskumena duen elkargo profesionala. "1. 2. artikuluan xedatutakoaren arabera elkargoaren nahitazko ikus-onespena eskuratzeko, lana izenpetzen duen profesionalak lanaren gai nagusian eskumena duen elkargo profesionalera joko du; lan osoaren ardura duen profesionalak gauzatzen duen jarduerari dagokiona izango da gai hori. Gai horretan elkargo profesional batek baino gehiagok badute eskumena, langileak horietako edozeinetan eskuratu ahal izango du ikus-onespena. Ondorio horietarako, ulertzen da 2. artikulua b) eta c) idatzietan aipatutako eraikinaren obra amaierako ziurtagirietan obra-zuzendaritza eta obra gauzatzeko zuzendaritza direla gai nagusiak, eta, beraz, nahikoa izango da arlo horietako edozeinetan eskumena duen elkargo profesional baten ikus-onespena lortzea. 2. Elkargo-erakunde bat Estatuko maila baino beheragoko elkargo profesionaletan egituratzen bada, derrigorrezko ikus-onespena behar duen lana izenpetu duen profesionalak horietako edozeinetan eskuratu ahal izango du ikus-onespena. Profesionalak atxikita dagoen elkargoa ez den beste batean eskatzen badu ikus-onespena, elkargoek dagozkien komunikazio-mekanismoak eta administrazio-lankidetzarako sistemak erabili ahal izango dituzte, elkargo profesionalari buruzko otsailaren 13ko 2/1974 Legean aurreikusitakoak alegia".

²² Lehiaren Batzorde Nazionalaren S/0002/07 espedientean, Espainiako Arkitektoen Kontseilu Nagusia, ohiko bukaeraren bidez ebatzi zenean, Kontseiluak adostutako akordio murriztailea aztertu zen; horren arabera, arkitekto edo arkitekto tekniko batek izenpetu behar zituen segurtasun eta osasuneko azterlanak, eta ikus-onespena ukatu egin behar zen beste teknikari batzuek izenpetuta bazeuden. Ohiko bukaeraren bidez ebatzi zen gaia, eta adostu zen azterlanek edozein teknikariren sinadura eduki ahalko zutela haien eskumena eta espezialitatearen arabera eskumena bazuten.



B. Ikus-onespena eskatzea.

30. EELren 24.i artikuluan xedatutakoarekin bat, bezeroek haien borondatez eta espresuki eskatutako lan profesionalak soilik ikus-onetsi ahal izango dituzte elkargoek, edo indarrean dagoen legediak ezarritakoak.

Egun indarrean dagoen araudia Elkargoen ikus-onespena nahitaez hartzeari buruzko abuztuaren 5eko 1000/2010 Errege Dekretua da. Horrek zehazten du zer lan profesionali eskatu ahal izango zaien elkargoaren derrigorrezko ikus-onespena, lanaren eta pertsonen osotasun fisikoaren eta segurtasunaren arteko kausaltasun-erlazioa dagoelako eta horretarako bitarteko neurrizkoena delako. Zerrenda hori bederatzi jardueratara murriztu da, eta 2. artikuluan dago jasota.

31. BITIEOEetan, 21. artikuluan arautzen da gai hori:

21. artikulua. Elkargokideen betebeharrak.

i) Dagokion elkargoaren ikus-onespenaren mende jartzea haren lanbide-jardunean izenpetzen dituen dokumentatu tekniko edo aukerakoak, proiektuak, txostenak edo bestelako lanak, indarrean dagoen legedian aurreikusitako baldintzetan eta kasuetan.

32. Elkargoak bezeroek haien borondatez eskatutako lanak soilik ikus-onetsi ahal izango ditu, bai eta Errege Dekretuan jasotako zerrendan jasota dauden eta ikus-onespena derrigorrean behar duten lanak ere.

B. Ikus-onespenen kostua.

33. EELren 24. artikulua xedatzen du ezen, ikus-onespena derrigorrezkoa bada, horren kostuak arrazoizko izan behar duela, ez neurrigabea eta ez diskriminatzailea, eta elkargoak prezio hori iragarri beharko duela.

34. BITIEOEetan, 25. artikuluan arautzen da gai hori:

25. artikulua. Baliabide arruntak.

5. Lan profesionalak ikus-onesteagatik indarrean dagoen legediaren arabera elkargoak kobratu beharreko kuotak edo tasak.

35. Elkargoak egiten dituen ikus-onespenetarako ezartzen duen prezioak publikoa izan behar du. Gainera, arrazoizkoa izan behar du, ez neurrigabea eta ez diskriminatzailea.

5. Lehia desleiala elkargokideen artean.

36. Gure sisteman indarrean dagoen Lehia Desleialari buruzko urtarrilaren 10eko 3/1991 Legeak (Lehia Desleialaren Legea) debeku oso zehatzak ezartzen ditu. Horien artean, nabarmentzekoa da 4. artikuluan jasotako klausula orokorra: "**Kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko harremanetan**, fede onaren eskakizunen kontrakotzat ulertuko da ardura profesionalaren kontrakoa den enpresaburu edo profesional baten portaera –ulertuko da ardura profesional hori merkatuko jardunbide prestuen arabera enpresaburu batengandik itxaron daitezkeen gaitasun-maila eta arreta bereziak direla–, baldin eta **portaera horrek kontsumitzaile arruntaren** edo jardunbidearen hartzaile den taldeko kide arrunt baten **portaera ekonomikoa modu esanguratsu batean aldatzen badu edo alda badezake**, kontsumitzaile-talde konkretu bati zuzenduriko



jardunbide komertziala bada". Klausula orokor horrekin batera, lehiaren kontraktatzat jo daitezke soilik aipatutako arau horren 5. artikulutik 31.era bitartekoetan tipifikatutako jarduerak. Publizitateari dagokionez, lehiaren kontraktatzat jo daitezke soilik Publizitateari buruzko azaroaren 11ko 34/1988 Lege orokorrean legez kontraktatzat jotakoak.

37. BITIEOEetan, 9., 60. eta 65. artikuluetan arautzen da gai hori:

9. artikulua. Eginkizunak.

Bere xedeak lortzeko, honako eginkizun hauek gauzatuko ditu elkargoak beste batzuen artean:

15. Intrusismoaren eta lehia desleialaren kontrako beharrezko neurriak hartzea, ordenamendu juridikoan jasota dauden ekintzen bitartez.

60. artikulua. Profesionalen zerbitzu-sariak.

Zerbitzu-sariak askeak dira, eta elkargokideek haien zenbatekoa eta ordaintzeko baldintzak adostu ahal izango dituzte beren bezeroekin, baina kontuan hartu beharko dituzte lehia desleialari buruzko legezko debekuak. Elkargoak zerbitzu-sariei buruzko irizpide orientagarriak jarri ahalko ditu soilik kostuak tasatzeko ondorioetarako.

65. artikulua. Arau-hausteen tipifikazioa.

Elkargoko Gobernu Batzordeak diziplina-zehapena ezarri ahalko die arau-hausteei, eta horiek arau-hauste arin, larri eta oso larritan sailkatzen dira.

(...)

2. Honako hauek dira arau-hauste larriak:

(...)

h) Lehia desleiala eragiten duten egintzak.

38. "Lehia desleialari" aipamen orokorra egiteak, kontuan hartuta termino hori modu arruntan erabili ohi dela legeak jasotakoa baino zentzu zabalagoan, lehiari murrizketak ezartzea ekar lezake.

Gai horietan arau-aldaketak egin direnez, eta elkargoko kideek horien berri izan beharrik ez dutenez, gomendatzen dugu BITIEOEetan espresuki aipa daitezela lanbide-jardueren eraginpean egon litezkeen Lehia Desleialaren Legeko mota urriak. Arreta berezia jarri behar da gutxieneko ordutegiak, zerbitzu-sarien koordinazioa edo horiek modu askean zehazteko mugak ezartzen dituen edo ezartzea sustatzen duen elementurik ez sartzeko, ez eta profesionalen merkataritza-komunikazioei mugarik ezartzen dizkien edo ezartzea sustatzen duen elementurik ere.

Gainera, arreta handiz zaindu behar da agindu horren garapena eta erabilera; izan ere, esan dugun eran, elkargoaren estatutuak hitzez hitz LDLren mende daude, baina horiez gain elkargoaren egintza eta erabaki guztiek ere horren mende egon behar dute.

6. Elkargoa elkargokideen lehia gisa.

39. Lehia Desleialaren Legearen 15. artikulua xedatzen duenez, "arauak urratzea" lehia desleiala izan daiteke.

Bere aldetik, honako hau dio EELren 24. artikulua: "Hona hemen elkargo profesionalen berezko eginkizunak:

a) Etika profesionala eta herritarren eskubide eta interesekiko errespetua zaintzea.



- b) Lanbidean nola jardun arautzea, dagokion esparruan eta indarrean dagoen legeriaren barruan.
- c) Profesionalen jarduna legezkoa eta egokia den zaintzea eta kideek betebeharrak eta eginkizunak betetzen dituzten begiratzea.
- d) Diziplina-ahalmena erabiltzea, 19. atalean zehaztutako moduan.
- e) Zerbitzu-sarientzako baremo orientagarriak ezartzea.
- f) Ordainak, soldatak eta zerbitzu-sariak kobratzea, elkargoko kideek eskatuz gero eta, betiere, elkargo bakoitzeko estatutuetan zehazten diren baldintzetan. Zerbitzu-sariak eztabaidagai dituzten prozesu judizial eta administrazio-jardunbideetan txostenak ematea.
- g) Elkargoko kideei zerbitzu orokorrak eskaintzea eta, bereziki, etengabeko lanprestakuntza bultzatzea eta prestakuntza horri zor zaion eraginkortasuna zaintzea.
- h) Kideen artean, edo horien eta beste pertsona batzuen artean, sortzen diren lan-auzietan esku hartzea, bitartekaritza edo arbitraiaren bitartez, betiere eragindako aldeek eskatzen badute.
- i) Kideen lanei oniritzia ematea, dena delako elkargoko estatutuetan aginduta badago edo dagokion legeriak agintzen badu. Oniritziak, nolana ere, honako hauek egiaztatuko ditu: lanaren egilea eta titulazioa, egilearen ahalmena eta gaitasuna, bai eta lanaren eduki formala ere. Oniritzian ez dira sartuko zerbitzu-sariak eta kontratuko gainerako baldintzak, aldeek askatasunez hitzartu ahalko baitituzte horiek.
- j) Administrazio publikoari denon interesak lortzen laguntzea, eta, bereziki:
 - Administrazio-organismoetan parte hartzea, partaidetza hori organismoen arauetan erabakita baldin badago, eta, betiere, arau horietan zehazten den moduan.
 - Dagozkion organo eta erakundeek eskatzen dizkieten txostenak eta beren ekimenez egin nahi dituztenak egitea.
 - Eskatzen dizkieten estatistikak egitea.
- k) Intrusismoa eta azpilehiaren kontrako beharrezko neurriak hartzea, ordenamendu juridikoan jasota dauden ekintzen bitartez.
- l) Aurrekontuak onartzea eta kideen ekarpenak arautzea.
- m) Gai zehatzei buruzko ezaguerak eskatzen dituzten epaimahaietarako ordezkariak aukeratzea, eskatzen dietenean.
- n) Lanbiderako mesedegarriak diren eta elkargoaren helburuak betetzera daramaten gainerako beste eginkizun guztiak.
- ñ) Indarrean den legeriak agindutako beste edozein”.

Azkenik, EELren 5. artikulua elkargoko kide egiteko honako eskakizun hauek ezartzen ditu:

- 1. Tituludun lanbide batean jardun ahal izango dute honako baldintza hauek betetzen dituztenek:
 - a) Dagokion titulua edukitzea, lege honetako 2.1. atalean xedatutakoaren arabera.
 - b) Lanerako gaitasunik gabe ez izatea.
 - c) Legeetan zehaztutako bateraezintasun edo debekuen pean ez izatea.
 - d) Beharrezkoa denean, elkargo-arauak betetzea.
- 2. Bestelako baldintzarik jarri nahi bada, legez onartu beharko da derrigorrez”.

40. BITIEOEetan, 25. artikuluan arautzen da gai hori:

25. artikulua. Baliabide arruntak.

(...)

4.- Elkargoko Gobernu Batzordeak zehaztuko ditu, kasuan kasuan, alderdiak eskatuta edo ofizioz, Elkargoari eskatutako peritu-txostenak edo -irizpenak emateagatik sortutako eskubideak.



41. 25. artikulua elkargoaren finantziario-iturri gisa ezartzen ditu igorritako txosten eta irizpenei dagozkien eskubideak. Artikuluan ez da jasotzen elkargoak gauzatutako lan horien izaera zein den; nolahi ere, horiek izaera profesionaleko lanak badira, elkargokideei dagozkien lan gisa hartu beharko dira, elkargoak ez baitu horiek garatu ahal izateko titulurik. Bestela, Elkargoa bere elkargokideekin lehian arituko litzateke. Alde horretatik, bi ondorio izan ditzake Elkargoak lanbideko berezko lan profesionalak egiteak:

- Elkargoa eragile ekonomiko bat izango litzateke, zerbitzuak emateko erreferentziazko eskaintzailea, eta profesionalek merkatuan zuzenean parte hartu ahal izateari kalte egin.
- Eragile batek (Elkargoak) lehenasuna izango luke haren kideen kaltetan, eta horrek elkargokideen lehia oztopatuko luke. Sistema horren eraginez, baliteke zerbitzu jakin batzuk barnean banatzea, Elkargoak negozioa "beretzat hartuta".

Horrenbestez, eta 25.4. artikulua ezabatzea erabakitzen ez bada, honako hau txertatzea proposatzen da: "Eskubide horiek ez dira, inola ere, elkargoak lanbidearen berezko zerbitzuak ematek etorriko".

7. Elkargoaren baliabide ekonomikoak.

42. Lehiaren Batzorde Nazionalak honako hau adierazten du elkargo profesionalei buruzko txostenean: "ikuspegi ekonomikotik, izena emateko edo elkargoko kide egiteko kuota altuak, bereziki elkargoko kide izateak merkatuan lehiatzeko abantaila handia bada, elkargokidearentzako murgildutako kostutzat jo daitezke, eta, beraz, elkargoan sartzeko oztopo izan daitezke, lehiakide berriak ez sartzeaz konbentzitzeko, edo horiek sartzeko atzeratzeko edo eragozteko asmoz; horrek lehia eraginkorra murriztuko luke, eta, gainera, elkargokideek izena emateko edo elkargoko kide egiteko ordaindu beharreko kuoten kostuak erabiltzaileengan eta kontsumitzaileengan eragitea erraz lezake"²³.

43. BITIEOEetan, 3., 15. eta 25. artikuluetan arautzen da gai hori:

3. artikulua. Elkargoan sartzeko eskaerak.

Bizkaiko ITIEOn sartzeko eskatzen duten pertsonak idatziz igorri beharko diote dagokion eskabidea dekanuari; horrekin batera, titulu ofiziala edo horren frogatik igorri beharko dira, edo, halakorik ezean, hori izapideetan dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria, bai eta titulua emateko ordaindu beharreko tasak ordaindu izanaren egiaztatzea ere.

15. artikulua. Beste eskakizun batzuk.

Aurreko eskakizunetaz gain, honako hauek bete beharko ditu eskatzaileak elkargoko kide egiteko:

(...)

7. Elkargoan sartzeko dagokion kuota ordaintzea.

25. artikulua. Baliabide arruntak.

Hona hemen baliabide arruntak:

Elkargoan sartzeko Elkargoak berak ezar dezakeen kuota.

Elkargoak ezarriko dituen aldizkako kuota arruntak.

Elkargoaren kapitala edo ondarea osatzen duten ondasunek eta ondare-eskubideek sorraraz ditzaketen fruitu, errenta, interes eta balio oro.

²³ Lehiaren Batzorde Nazionalaren txostena, 57. or.



4. Elkargoari eskatutako peritu-txostenak edo -irizpenak emateagatik sortutako eskubideak; Elkargoko Gobernu Batzordeak zehaztuko ditu, kasuan kasuan, alderdiak eskatuta edo ofizioz.
5. Lan profesionalak ikus-onesteagatik indarrean dagoen legediaren arabera elkargoak kobratu beharreko kuotak edo tasak.
6. Elkargoak egiten dituen argitalpenengatik edo antolatzen dituen edo esku hartzen duen ikastaroen matrikulengatik eskura ditzakeen mozkinak.
7. Elkargoaren edozein ziurtagiri edo esku-hartze emateagatik Gobernu Batzordeak ezarritako eskubideak.

44. Elkargoan sartzeko eskabideentzat ezartzen den sartzeko-kuotari dagokionez, kontuan hartu behar da neurrikoa izan behar duela, ez diskriminatzailea, eta hori izapidetzeak dakarren benetako kostuaren arabera ezarri behar da. Sartzeko kuota ez da erabili behar elkargoaren beste zerbitzu batzuk finantzatzeko iturritzat, ez eta lanbidean sartzeko asmoa kentzeko bidetzat ere, are gehiago lanbide hori gauzatzeko derrigorrezkoa bada elkargo bateko kide izatea.

8. Elkargoaren bidez elkargokideen enkarguak ematea.

45. BITIEOEetan, 9.12., 9.18. eta 20. artikuluetan arautzen da gai hori:

- 9. artikulua. Eginkizunak.**
Bere xedek lortzeko, honako eginkizun hauek gauzatuko ditu elkargoak beste batzuen artean:
(...)
12. Informazio-zerbitzu aktibo eta eraginkor bat mantentzea Elkargoari dagokion lurralde-esparruan elkargokideek estali, gauzatu edo landu beharreko plazei eta lanei buruz, hori modu egokienean bete dadin, eta lan profesionala eta industria-errendimendua ahal den eraginkorra izan dadin.
18. Gai zehatzei buruzko ezaguerak eskatzen dituzten erakundeetarako edo epaimahaietarako ordezkariak izendatzea.
- 20. artikulua. Elkargokideen korporazio-eskubideak.**
Honako korporazio-eskubide hauek izango dituzte elkargokideek:
- c) Elkargoak eman ditzakeen informazio eta zerbitzuak jasotzea harengandik: aholkularitza juridikoa, fiskala, lanekoa, lan-poltsa, etengabeko prestakuntza, etab.
- e) Zerbitzu-sariak kobratzea Elkargoari eskatutako eta elkargokideen artean ezarritako ofiziozko txandagatik hari egokitutako irizpenak, txostenak, proiektuak, aholkularitza-lanak eta haren eskumeneko gainerako lanak egiteagatik. Elkargoak zainduko eta kontrolatuko du ofiziozko txanda horren funtzionamendua, edo horretarako eratuko den edo eginkizun hori esleitu zaion batzordeak, ordena zorrotzean eta modu guztiz bidezkoan gauza dadin.

46. Eginkizun horiek gauzaterakoan, Elkargoak ez dio inolako mugarik jarri behar lehia defendatzeari buruzko araudiari. Zerrendak sortzerakoan ez da jarri behar legeak ezarritakoez gain beste eskakizunik.

Elkargoak lan-zerrendak edo -poltsak ezartzea erabakitzen badu, ez du arrazoitu gabeko izena emateko eskakizunik jarri behar, nahi duten profesional guztiei horietan sartzeko eragotziko dienik. Zehazki, Prozedura Zibilaren Legean xedatutako agindua betetzeko epaitegietara igorri behar diren peritu judizialen zerrendak osatu behar



badira, Elkargoak ezin izango du legean ezarritakoez gain beste eskakizunik ezarri. Bestela, profesionaleri arrazoirik gabeko oztopoak jartzen ariko litzateke.

Elkargoak ez du profesionalen jarduera koordinatzeko xedez jardun behar, eta ez du zerbitzu-eskaintza homogeneizatzea bultzatu edo erraztu behar.

Elkargoak ez ditu ezarri edo erraztu behar merkatua bere elkargokideen artean banatzeko sistemarik, profesionalen arteko lehia oztopatuko bailuke bezeroen kaltetan²⁴.

9. Gaizki egindako lanen erantzukizuna. Erantzukizun zibileko aseguruak.

47. Aterki Legeak erantzukizun profesionaleko aseguruari eta bermeei buruzko 21. artikuluan xedatu zuen soilik legez eskatu ahal izango zaiela zerbitzu bat ematen dutenei erantzukizun zibil profesionaleko edo antzeko beste berme bat izenpetzea, zerbitzua ematean eragin ditzaketen kalteak estaltzeko²⁵. Artikulu berari jarraiki, derrigortasun hori legez noiz eskatuko den zehazteko irizpidea da ematen diren zerbitzuek arrisku zuzena eta zehatza ekartzea hartzailearen edo hirugarren baten osasunerako edo segurtasunerako, edo hartzailearen finantza-segurtasunerako.

Hori horrela, EELren 12. artikulua xedatu du profesional tituludunek haien lanbide-jardueragatik sorraraz ditzaketen erantzukizun zibileko arriskuak estali beharko dituztela, dagokion aseguruaren bidez, eta, elkargo bateko kide izatea eskatzen duten lanbideetan, Elkargoak neurri egokiak hartu beharko ditu haren elkargokideek aseguruari dagozkion betebeharrak betetzen dituztela bermatzeko.

48. BITIEOEetan, 59. eta 65. artikuluetan arautzen da gai hori:

59. artikulua. Erantzukizun profesionala.

1. Elkargokideak pertsonalki erantzuten du hark izenpetzen dituen lan profesionalez.
2. Elkargoak erantzukizun zibileko poliza bat izenpetzea eskatuko die egiaztatu edo ikus-onetsi behar diren lan profesionalak idazten eta izenpetzen dituzten elkargokideei; bestalde, elkargokideek nahi dituzten gainerako aseguruak ere kontratatu ahal izango dituzte.
3. Elkargoak ikus-onetsitako lan profesional batek kalteak eraginez gero, eta horren egilea bada erantzule, Elkargoa izango da erantzule lan profesionala ikus-onesteko unean Elkargoak nabarmendu izan beharko zituen akatsek eragindako kalteez, lan jakin horretan ikus-onetsi diren elementuekin lotura zuzena dutenez.

²⁴ Lehiaren Batzorde Nazionalak banaketa-txandei buruz hitz egin du zenbaitetan: 639/08 Espedientearen Ebazpena, Gaztela-Mantxako Farmazialarien Elkargoari buruzkoan, adibidez, farmazia-prestaziorako errotazio-txandak aztertzen zirenean; edo 562/2003 Espedientearen Ebazpenean, Bilboko Notarioen Elkargoari buruzkoan, beste batzuen artean.

²⁵ 21. artikulua. Erantzukizun profesionaleko aseguruak eta bermeak.

1. Zerbitzuak ematen dituztenei, lege-mailako arau baten bidez, erantzukizun zibil profesionaleko aseguru bat edo antzeko berme bat izenpetzea eskatu ahalko zaie, zerbitzua ematean eragin ditzaketen kalteak estaliko dituen, ematen diren zerbitzuek arrisku zuzena eta zehatza badakarte hartzailearen edo hirugarren baten osasunerako edo segurtasunerako, edo hartzailearen finantza-segurtasunerako.

Eskatzen den bermeak estaltzen duen arriskuaren izaeraren eta irismenaren parekoa izan behar du.

2. Hori egiaztatzeko, horiek emandako ziurtagiriak onartuko dira.

**65. artikulua. Arau-hausteen tipifikazioa.**

Elkargoko Gobernu Batzordeak diziplina-zehapena ezarri ahalko die arau-hausteei, eta horiek arau-hauste arin, larri eta oso larritan sailkatzen dira.

(...)

2. Hauek dira arau-hauste larriak:

(...)

d) Aseguru bat izateko beharra ez betetzea, legeak edo estatutuek hori behar dela ezartzen badute.

49. Horri dagokionez, Elkargoak kontuan hartu beharko du honako hau:

- Eskatzen den bermeak estaltzen duen arriskuaren izaeraren eta irismenaren parekoa izan behar du.
- Elkargoak ezin du, inola ere, aseguru edo enpresa jakin bat kontratatzea behartu.

Esandakoarekin bat, legez soilik eskatu ahalko zaie zerbitzu-emaileei erantzukizun zibil profesionaleko aseguru bat edo antzeko berme bat izenpetzea, zerbitzua ematean eragin litezkeen kalteak estaltzeko; beraz, kendu egin behar da atal horretatik estatutuetan aseguru bat kontratatzeko ezarritako betebeharraren aipamena.

IV. ONDORIOAK

Lehena.- Elkargodun lanbideetan aritzen direnek lehia askean aritu behar dute, eta Lehia defendatzeko 15/2007 Legea bete behar dute, bere osotasunean.

Bigarrena.- Elkargora nahitaez bildu beharrak lehiarekin zerikusia duten gaiak planteatzen ditu, eta ez merkatura sartzeari dagokionez bakarrik, baita lanbidearen jardunari dagokionez ere, eta horrek interes publikoa eta kontsumitzaileak kaltetu ditzake. Hori dela eta, muga hori justifikatzen duten interes publiko kaltetuak daudela egiaztatzen denean bakarrik onartu ahal izango da hura derrigor ezartzea (lege bidez bakarrik).

Hirugarrena.- Elkargoek lanbideen jarduna antolatzeke gauzatzen dituzten jarduerak, interes korporatiboen defentsan ez ezik, elkargokideen zerbitzuak kontsumitzen eta erabiltzen dituztenen interesen babesean ere oinarritu behar du, gizartearen asmo eta behar orokorrekin bat eginda.

Laugarrena.- Lehiaren Euskal Agintaritzak, txosten honen bidez, Bizkaiko Peritu eta Ingeniari Tekniko Industrialen Elkargo Ofizialaren Estatutuetako honako artikulua hauek aldatzea behar-beharrezkoa dela adierazten du: 12. eta 58. (elkargoko kide izatea derrigorrezkoa izatea) eta 13.3. (komunikazioa) artikulua. Halaber, honako artikulua hauek egokitzea edo aldatzea gomendatzen du: 3. (titulazioa), 14. (elkargoko kide izateko eskakizunak) eta 25.4. (Elkargoa elkargokideen lehia gisa) artikulua, eta txostenean zehar egin diren iradokizunak kontuan hartzea proposatzen du.

Bilbon, 2014ko uztailaren 7an.